

N-308863

2R5
3772

Exercicioa
Confirmacionccotz.



BAYONAN,
CLUZEAU ANAYEN baithan, Jaun
Aphespicuaren Imprimatçaileac,
Orbeco Carrican, N° 9.

GRANT

GRANT



GRANT

GRANT



EXERCICIOA CONFIRMACIONECOTZ.

*Goiceco othoitzaren ondotic, hemen diren
bi hauc behar dire erran :*

IZPIRITU SAINDUARI OTHOITZA.

O Ene Jaincoaren Izpiritu amultsua, çure egoitzaren ene baitan eguitera nahi çarenas gueros ethorri, haurtasunari baitezpada datcheizcon herbaltasun eta escasei behatu gabe, huna non naicen lurreraino beheratua çure Majestate guciz-goraren aitcinean. Eguçu guerotic guerora eçagut deçadan guehiago eguin nahi darotaçun

fagorearen balio eta handitasuna , arren bada ,
 ahal guciaz , berma nadia çu Sainduqui ene
 baitan sararazteco : edo hobequi , ò Izpiritu ,
 ontasuna , garbitasuna eta amodioa bera çarena ,
 khien çachu ene bihotzetic çureari gaitcitceco gai
 leitequen gucia , eta ceronec çachu aphain ni bai-
 tan bereci nahi duçun egoitza. Hala-bis

*IZPIRITU Sainduaren çazpi dohainac
 ardiesteco othoitça.*

Ene Jaun-goico guciz-botheretsu , bethitic eta
 bethico çarena , berri-berritan Sororaci içan nahi :
 nauçu uraz eta Izpiritu Sainduaz ; eman ere dau-
 taçu ene hoben gucien barkhamendua : khoroa
 çatçu egun çure ongui-eguin ecin asqui preçatuz-
 coac ; Jauts-araz çachu ene gainera çuhurtciaren
 Izpiritua , mezpreçaraz dietçaquidan mundu hun-
 tan mezpreça-garri diren guciac eta maitaraz bet-
 hiereco ontasunac.

Igor dieçadaçu adimenduaren Izpiritua , haren
 argui bicien bidez , eçagut deçadan ongui ene
 Erreligione Saindua.

Isur dieçadaçu çure Izpiritu conseilluztoa , ar-

hosqui bilha deçadan çuri agrada-garri içateco
eta cerura heltceco bide segura.

Bethor ene gana indarrezco Izpiritua , biçarria-
requin detçadan garai ene salbamenduco traba guciac

Bethor Jaquintasunaren Izpiritua , Jaincozco
gaucetan argui eta çucen bida naçantçat.

Jauts-bequit Jaincotiarco Izpiritua , ezti eta
maitagarri aurkhi-araz dieçadantçat Jaunaren
cerbitçua.

O ene Jaincoa , igor dieçadaçu çure beldur-
cundezco Izpiritua , soraraz deçan ene baitan
çuretçaticaco errespetu amodiozco bat , çu da-
muzta beldurrean iduquico nauena. Ciguilla na-
çaçu , çure urricalmenduan , Jesus gurutcefi-
tuaren seinaleaz , bethiereco biciarentçat.

Eguiçu azquenean , bihotzean ere ekhar de-
çadan , copetan dakharquedan gurutce bera , çu
goraqui , guiçonen aincinean eçagutu eta aithortu
ondoan , ordainez çutaz eçagutua eta sariztatua
içateä mereci deçadan azquen judicioco egun ik-
hara-garrian. Hala-bis.



CONFIRMA - AITCINECO ACTAC.

FEDEZCO ACTA.

Ene Jainco maitea , cin-cinez eta tinqi sinhetsten dut çure Izpiritu saindua errecibitcera nohala confirmacioneco sacramenduan : sinhetsten dut çure erranaren gainean eta çarelacotz eguia soberanoa , ecin enganatua eta ecin engana gaitçaquetçuna.

ESPERANTÇAZCO ACTA.

Ene Jaincoa , esperantça dut , errecibitcean çure ontassun mugarri-gabecotic eta mereci ezrudalaric , çure Izpiritu Saindua , hura bere gracia eta fagore ugarienequin errecibituco dudala , guiristino perfet eguinen nauela eta emanen indarra ene fedearen aithortceco , biciaren galtceco menturan banintz ere.

AMODIOZCO ACTA.

Ene Jaincoa , maite çaitut ene bihotz guciaz , ene arima guciaz , ene indar guciez eta gauça gucien gainetic , ceren çu baitçare gucz ona , gucz maitagarria eta eman nahi baitarotaçu Sacramendu huntan çure Izpiritu Saindua. Susta

çaçu ene bihotza çure amodioaz , iraun deçadan
sentimendu hortan ene hatsac diraueino. Amen.

CONFIRMA ONDOCO ACTAC.

ESQUER ONEZCO ACTA.

Ene Jaincoa , gai ez naicen arren comprenit-
ceco çu emanic heldu çaiçquidan ontasunaren
handitasuna , partialier eguin nauçunean çure Iz-
piritu Sainduaz bere gracia guciequin , esquerrac
halere bihurtcen darozquitçut eçagutçazco sen-
timendu bicienarequin : onets çatçu errequeritcen
çaitut , ene bihotzac çu gana altchatceco dituen
lehiac eta çure Majestate Soberanoari ematera
atrebitcen naicen esquer onac. Ezta nihoiz bor-
ratuco ene arimatic han çure bihotz-ontasunac
ciguillaturic utzi içan duen christau eguiazcoaren
seinalea , ceinarentçat içanen baita bethi , eta
bethi eçagutçaz bethea.

CONSECRACIONEZCO EDO OFRENDAZCO ACTA.

O Amodiozco Izpiritua , ô ontasun mugarri
gabea , çure urricalmendu hutsez eta ene mereci
gucien contra niri çaren gucia eman ondoan ,
nola içan ahal nintequ asqui esquer-gaitza , or-

dainez çuri ene buruazco ofrenda oso-osoaz ez eguïteco ? Ez , ez , urrun holacoric ene ganic ; har naçaçu naicen gucia çuretçat. Ofrendatcen darotçut ene Izpiritua bere gogoeta guciequin , ene arima bere muguida guciequin , ene bihotza bere amodio eta lothgune guciequin. Çu içanen çare hemendic hara ene bihotzeco Jaincoa eta bethico ontasun bakharra. O Izpiritu Jaincozcoa , akhaba çaçu ene baitan hasi duçuna ; finca çatçu gogoratu darozquidatçun sentimendu onac , eta eguiçu erre naçan behinere iraunguico ezten çure amodioaren kharrac.

GALDEZCO ACTA.

O ene Jaincoaren Izpiritua , çu çaren guciatz eta çure dohain guciez ohoratua eta aberatstua banathor fidauteiarequin çure aïtcinera eta çairut othoitzten ceronec beguira dietçaquidatçun eman içan nahi darozquidatçun gracia guciz ugarïac. Joja bat da eta thresor bat ecin erran beçain baliosa , ordean jarro hautscor batean dakharquedana. Çu behar cinen çaren beçain ona niri fagore bereci horien eguïteco. Bethi naiz arriscutan gucien galtceco , çure beso borheretsuaz laguntcen ez banauçu. Sentitcen du-

dala dacuzat thresor balios horrenpreciatuqui
 beguiratceco guticia eta lehia cinezco bat ; or-
 dean eçagutcen eta aithortcen dur humilqui ecin
 daiquedala çure laguntça gabe. O Indarrezco
 Izpiritua , borthitz çacu ene herbaltasuna , eror
 çaiten ene botu khartsuetara , eta eguiçu iraun
 deçaten ene baitan çure graciec , ciguillatua
 utzi dautaçun character eta seinaleac beçambat ,
 erran nahi da , ene bici gucian eta mugaric
 eztuen ethorquiçun gucian.

*IZPIRITU Sainduaren hamabi Frui-
 tuac galdetceco othoitza.*

Izpiritu Saindu , Aita eta Semearen amodio
 bethierecoa , indaçu , othoi , caritatearen fruitua ,
 çurequien bat amodioz eguin naçantçat. Bozca-
 rioaren fruitua , içan nadintçat consolacione eta
 goço saindu batez bethea. Baquearen fruitua ,
 soraraz deçan ene ariman hambat premia duen
 sosegua.

Pacienciaren fruitua , Jasanaraz dieçadan ez-
 riqui ene arimaren baquea nahas leçaquen gu-
 cia. Bihotz samur eta bera baçen fruitua , ene

lagun-urcoa bere beharretan laguntcera erakhar-
rico nauena. Bihotz-ontasunaren fruitua, gu-
cien aldera ongui-eguille eguin naçantçat. Pai-
rucortasunaren fruitua, edo cein luçamenec un-
haracico ez nauena. Eztitasunaren fruitua, khe-
chatu gabe Jasan detçadan lagun nekhagarrienac.
Fedearen edo sinhetstearen fruitua, duda eta
cordocatu gabe, sinhetsaraz dieçadan Jaincoaren
hitz Saindua. Modestiaren fruitua, ene campo
gucia çucen erreguelatuco duena. Garbitasunaren
fruitua, ene gorphutza çure Templuari egoqui
çajon Saindutasunean iduquico duena; arren
bada, ene bihotza beguiratu ondoan garbi be-
here huntan, çure bethi eta bethi icustea me-
reci deçan loriaco egoitzan. Hala - bis.

*ELIÇATIC ilkhi baino lehen, eguinen
da ondoco othoitç hau.*

Ilkhitcera goaz, Jauna, gure arimac bisitatu
nahi içan ditutçun Templu Saindu huntaric; eta
bagoaz sartcera bethi Jesusen Izpirituari con-
tresta eguiten hari den mundu galdura. O Iz-
piritu Saindua, etçaitecela urrun gure ganic;

Ezgaitçatçula utz haren malecia eta gaixtotasu-
naren menera ; bida gaitçala çure arguiac eta
susta çure amodioac : Begüira çatçu Evange-
lioaz gorri eta ahalquetcetic oraino Chrisma Sain-
duaz distiatzen duten gure copetac ; iduc-atçu
ene miembro, çure-çure bilhacatu direnac, bekha-
tuaz farfanatuac içatetic urrun ; nihoiz gure bi-
hotçac enferra ez beitez çure nahiriari, aiticie
içan beitez bethi çure graciaren aldera çalhu
eta maneacor , ceren çu baitçare çuhurtçiazco
eta indarrezco Izpiritua eta çuc bakharric com-
pliaraz baitieçaqueguçu gogora eman nahi dau-
cuçun gucia. Amen.

BATHAJOCO BOTUEN ERREBERRITÇEA.

Huna non naicen çure oinean , ô ene Jaun
goicoa , hain çucenqui çor dautçudan eçagutça-
ren seinalatceco eta Bathajoco gracia guciz han-
diaz esquerren çuri emateco. Sorthu ninteen co-
lerazco ume eta debruaren gathibo , Sainduen
çorionean partalier içan ez nintequen estatu edo
içandura batean. Çure ontasunari natçajo bak-
harric çordun , ene Jaincoa , baldin Eliça ca-

tholigaren galtzarrean sorthu banaiz. Çuc helaraci nauçu ; Bathajoco gracia saindura ; bihurtu darozquidatçu ordu beretic ceruco primeçara nientien çucen eta dretchu guciac. Jaincoaren umen ciguilluaz berriguindua , nuelaric buruçagui eta anajatçat Jesu-Christo bera , ez nintcen berri-berritan debruaren gathe pisu eta ahalcagarri-etara erori behar. Certaco bada behar nuen damuztatu eta ene bihotzetic khasatu Izpiritu Saindua ? Cer eguin da ene inocenciaco soin churia ? Cer bilhacatu dire ene aita-bitchi , amabitchiec , ceru , lurren aiticinean , enetçat bahitu cituzten hitz eta aguintçac ? Ah ! Jauna , hautsi ditut. Inocenciaco ene arropa bekhatuaren basan herrestatu eta lohitu dut. Çuc ordean , ene Jesus maitea , egun garbitu darotaçu çure odolean , non elhurra baino eguin baita churiago. Orai , ene Salbatçaille amultsua , orai erreberritcen tut hautsi tudan botu eta aguintçac , ordean hortcharic gabe eta gai naicen cintassun guciarequin. Bai sinhetsten dut , eta ene sinhetstea içanen da hemendic hara ene bicitceco erreguela. Aphaindura mundutarrac , atseguin traidoreac , bilkhu profanoac , deus etçarete ene bihotzarentçat iça-

nen. Eyangelio Saindua , çutan eta çutaz iça-
 nen dire ene atseguin guciac. Çu , Templu Sa-
 cratua , çu içanen çare ene egoitça. Lurrean
 çareten prestuac , çuen baltsara ethorrico naiz
 Jaincoaren laudorioen cantatcera ; eta dathorre-
 nean ene azquen orena , Aingueruec Sararacico
 naute çuequien bethiereço Tabernacleetan , go-
 çatceco , gal-beldurric gabe , bisitatu gaituen
 Jaincoa. Hala - bis.





